

## Garazi Arrula Ruiz

Kaixo, Joxe:

Aspaldikoa ere esan nezakeen, luze baita harremana etenda genuela, gaixoaldiak hartaratuta. Baten batek pentsatuko du, arrazoiz, zer ari naizen zuri lau hitz hauek idazten; ez zintudan irakasle izan, ez dut zure obraren gaineko azterlanik egin, ez ginen hain hurbileko ere. Nolanahi den, estimu handitan zintudan, eta, zilegi balekit esatea, izandako tratu ez oso oparo horretan, adiskidetasuna jaso nuen zugandik ere.

Heriotzak gurutzatzen gaituenean gertatu ohi denez, zugana itzuli naiz azken egunotan; trukatu genituen emailak bilatu ditut, irakurri dizkizudan liburuak orriztatu, aipamen izan zaitudan idatziak berrirakurri, hizpide izan zaitugun elkarrizketak gogora ekarri.

Tartean dira tesia egiten nenbileneakoak; zehazki, 2014an Lorea Agirrekin izandako solasaldi bat, zeinetatik nik, komenentzia handiz, autoitzulpenaren kontrako argudioak arrantzatu bainituen. Ez zinen euskaratik erdaretara itzultzearen aurkakoa, sistematikoki itzultzearen kontrakoa baizik; euskaldunok geurea eta soilik geurea izan den mundu espiritual bat sortzea lehenesten zenuen, geure mito, geure pentsamendu, geure barne mundu eskusiboarekin. «Ez ezkutatu nahi dugulako, baizik eta hori sendo barruan eduki arte ez dugulako geure burua osatuta izango. Barrutik puskatuta gaudenok, hori eduki behar dugu. Eta hori eginda daukagunean, erabakiko da zer itzuli eta zer ez». Hala, zure esanei zintzo, liburu bat eta zenbait artikulua kenduta, euskarazko hartzaileari eskaini zenizkion ehunka lan. Zure hitzen behin-behineko itxitasun hermetiko hori ulertzeko, kontuan hartu behar da nazio eraikuntza nahitaez kulturari eta hizkuntzari loturik konprenitzen zenuela, eta horrek arrasto handia utzi zuen ustez zer-bait eta praktikan deus gutxi zekien doktoregai honengan.

Solasaldi haren urte berean idatzi nizun aurrenekoz, *Berria*-ko artikuluren batean aipatua zintudala eta irakurle taldera *Barkamena*, kon-

*dena, tortura* eraman nuela aitzakiatzat hartuta. Egiaz, esker ona adierazteko modu akaso trakets bat zen, zure ideiek zer pentsatua eman zigutela-eta horiei tira egiteko saiakera bat. Eskerrak ematen zenizkidan biengatik, apaltasun handiz betiere, bueltan laudorioren bat opari utzita. Alta, mezu truke horren gehiengoa, hurrengo aldietan bezalaxe, bestelako gai batek hartzen zuen: Nafarroa Garaiko hego erdiak eta, bereziki, hango paisaiak.

«Badakizu Tafalla/Olite ingurua niretzat guztiz partikularra dela Euskal Herrian». Badakit, bai, nahiz eta ez nintzen nekatzen entzuteaz Erriberrin abertzaletu zenuela zeure burua. Martxoan hitz egin bagenuen, almindroak aipatuko zenizkidan, «lore txiki arroxakara zoragarri batekin loretan egongo dira, landa idorretan!». Apirila bazen, kukuaren kantua ekarriko zenuen akordura, estudiante garaiko pasadizoren batekin. Sasoia zeinahi zelarik ere, sorolur zabalak, herri txukun zainduak eta eliza erromaniko bikainak. Eta, sarri askotan gertatu bezala (akonplejatu dohakabeak gu!), besteren begitik deskubrituko nuen nire sorterrria, ederrago, biziago, harroago. Finean, larreez eta basoez eta nor egiten gaituen lurraz mintzatu izan ginen batez ere, zu horietara lerratzen zinelako behin eta berriz eta nik amore eman bainuen aspaldi, hasieran frustrazioz, bizitza osoa eskaini zenien gaitara ezin ekarriz, eta azkenerako kontent, ulertuta. Zer da ba gure inguru natural eta sinbolikoaz hitz egitea ez bada herrigintzaz eta kulturgintzaz aritzea?

Zugana itzuli naiz azken egunotan, baina ez utzitako obra paregabea leitzeko edo artikulua xume hau janzteko asmotan. Joxerekin berraurkitzeko itzuli naiz, goitik beherako koherentzia eta konpromisoaren azpian aurkitu nuen hezur-haragizko herrikide harekin.

Esker ona baizik ez dut zuretzat. Utzi diguzun legatu kolosalagatik, bai eta tamaina bereko erronkagatik ere. Merezi duzunez, euskal herriek oroituko zaituzte. Nik ere bai, adibidez, «zelai mugetan basarriak xuri-xuri» ikusten ditudan bakoitzean.